


HERNANI

2022-2023 ikasturtea



eskolako
agenda
2030



ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA

7 ENERGIA
ESKURAGARRI
ETA EZ-KUTSATZAILEA




Aurtengo ikasturte honetan, 2022-2023an, Eskolako Agenda 2030 berriarekin abiatu gara. Berrikuntzen artean, programa bi ikasturtetan zehar burutuko dugula da eta lasaitasun gehiagorekin arituko gara: lehenengo urtean diagnostikoa landu eta esku-hartze plana diseinatu eta bigarrengoan, ekintzak martxan jarri.

Aukeratutako Garapena Jasangarrirako Helburua 7. izan da, **ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ-KUTSATZAILEA** eta lelo bezala, “Energia, bizitzaren motorra”.

Programaren partaideak Hernaniko lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikastetxe eta etapa guztietako ikasleak izan gara, haur hezkuntzatik hasi kasu batzuetan eta batxilergoraino besteetan.

Txosten honen bidez, aurtengo jarduna azaldu nahi dizuegu.



IKASTETXEAN EGINDAKO LANKETA

Energiaren gaia arrotza egiten zaigu, batez ere gaztetxoenen artean, baina egindako aurre-lanak kokatzen lagundu digu. Horietan, energiaren inguruko aurkezpen bat ikusi genuen, bideoak, ipuinak, jokoak, galdetegiak eta abar. Ikastetxeko “Ostadar Txokoa” apaintzen joan gara ikasturtean zehar topatzen genuen informazioarekin. Pixkana pixkana konturatzen joan gara energiak gure bizitzan duen presentziak. Edozer gauza egiteko energia behar dugulako!

Zikloka banatuta, ondorengo ekintzak burutu ditugu:



Haur Hezkuntzan: Energiak bizi!

Energia mota ezberdinen inguruko bideo txikiak ikusi eta marrazkien bidez, hiztegia landu dugu. Bi ideia ikasi ditugu: eguzkia, haizea eta ura argindarra sortzeko erabili daitezkeela eta janaria, guk indarra lortzeko dugun iturria dela. Horretaz gain, horma-irudi batean islatutako akatsak antzemanaz, energia alferrik ez dela gastatu behar jabetu gara.

LH 1-2: Lurra sendatuko dugu

Irudien bitartez, energia zertan erabiltzen dugun ikusi dugu. Gure ohiturek, ingurunean eragina dutela konturatu gara, kutsadura sortu dezakegulako eta horregatik, planeta gaixotzen ari garela. Atera dugun **ondorio** nagusia energia gehiegi kontsumitzen dugula izan da eta murrizteko zein jokabide izan behar dugun ezagutu eta horiek praktikan jarriko ditugu. Gaztetxoenen hitzetan: “Gure eguneroko bizitzan ohiturak aldatzen ez baditugu, nekez Lurra sendatuko dugu”. Beraz, ondorengoak egiteko prest gaude: argia soilik behar denean piztu, ura alferrik ez gastatu, garraio publikoa gehiago erabili eta ahal denean eskolara oinez joango gara.

LH 3-4: Nire etxeak ere energia asko behar du

Ettxera eraman dugu gaiaren lanketa eta horrela, familiek parte hartu dute hainbat ariketa elkarrekin eginez. Etxearen plano baten gainean, bertan ditugun tresna elektriko eta elektronikoak kokatu dira. Ondoren, energia zein egoeretan erabiltzen den identifikatu eta zein kontsumo diren beharrezkoak eta zeintzuk saihestu daitezkeen ezagutu ditugu.

Jabetu gara etxeetan ere energia asko kontsumitzen dugula eta energia horren gehiengoa iturri ez-berriztagarrietatik datorrela, etxebizitzetan eguzki plaka oso gutxi daude. Gainera askotan ez da erabilera arduratsua egiten. Beraz, gutxiago gastatzeko hainbat **konpromiso** hartu ditugu. Adibidez, telebistatik ikusi behar ez badugu itzaltzea, gela batetik ateratzean argiak itzaltzea, argi naturala gehiago aprobetxatzea, hozkailua ondo itxita mantentzea eta berogailua piztuta dagoenean leihoak ixtea.



LH 5-6: Energiaz jokatzuz, bertakoa kontsumitu

Gaiaren abiapuntua energia ohituren inguruko galdetegi bat betetzea izan da. Ondoren, energia berriztagarrien inguruko informazioa jaso da eta kasu batzuetan kalera irten gara herrian energiak duen presentzia ezagutzera. Herriko energia kontsumoak identifikatu dira. Horiek ere ingurumenean eta klima aldaketan duten eraginaz jabetuz.

Ohartu gara energia ezinbestekoa dugula gure egunerokoan eta energia asko alferrik gastatzen dela ere. Ondorioztatu dugu Hernanin energia berriztagarri gutxi ekoitzi eta erabiltzen dela, baina gehiengoak kiroldetik biomasa galdara ezagutu dugu. Oso bisita interesgarria izan zen!

Lanketaren ondoren guk ere **konpromiso** batzuk hartu ditugu. Adibidez, berogailuaren gainean ez dugu ezer jarriko eta piztuta badago leihorik ez dugu irekiko, ahal denetan argi naturala aprobetxatu eta gailuak guztiz itzali eta ez utzi stand-by egoeran. Eskolara oinez edota bizikletan etortzeko konpromisoa hartzen dugu eta igogailuak gutxiago erabiltzeko ohitura hartuko dugu.



DBH 1-2: Auzoko argiztapena eta argi kutsadura

Lehenik gelan, energiaren eta kaleko argiteriaren inguruan informazioa landu dugu. Ondoren, kalera atera eta diagnostikoa osatzeko behaketak egin ditugu: non daude farolak, zein distantziarekin, modu egokian argizatuta ote dagoen auzoa, farolen egoera, argitasun maila, argi kutsadura...

Guzti honen berri zehatzagoa eta herriko energia berriztagarrien presentzien inguruan hitz egitera Udaleko Energia teknikaria etorri zen guregana.

Ondorioztatu dugu ia farola guztiak egokiak direla eta argi egokia ematen dutela, nahiz eta gune batzuetan ez den horrela gertatzen. Gune hauen zerrenda osatu eta eskura emango diegu udal agintariei.

Maila honetako ikasleak ere **konpromisoak** hartu ditugu. Besteak beste, argiak eta tresnak behar ez ditugunean itzali, ahal den guztietan argi naturala aprobetxatu, berogailua gutxiago erabiltzeko beharko balitz arropa gehiago jantzi, ura aurreztu eta garraio publikoa erabili. Eskolan askotan, egunero arduradun bat izendatuko dugu piztuta dauden argiak eta tresnak behar ez direnean itzaltzen direla ziurtatzeko.




DBH 3-4: Inor atzean utzi gabe!

Pobrezia energetikoa zer den ezagutu dugu. Hausnarketarako testu bat irakurri ondoren, gaiaren inguruan eztabaidatu dugu. Jabetu gara urrutira joan beharrik ez dugula energia behar larriak dituzten pertsonak topatzeko. Baita gure herrian ere!

Energiarik gabe egun bat ere ezingo genuke pasa. Ikastetxean energia ondo erabiltzen dugun jakiteko, galdera sorta osatu eta behaketa egin dugu. Eta eskolako argi faktura bat aztertu dugu.

Pobrezia energetikoa gizarteko talde ahulenei eragiten die eta **ondorio** esanguratsuak izan ditzake osasunean, etxebizitzan, desberdintasun sozialean, ingurumenean, hezkuntzan eta segurtasunean. Menpekotasun izugarria dugu argindarrarekiko eta energia garestitzearen ondorioz geroz eta familia gehiago daude ezin ordaindu.

Gure **konpromisoen** artean, saiatuko gara kontsumitzen dugun energia ahal den neurrian murrizten, argia behar ez denean ez pizten, gailu elektriko eta elektronikoak deskonektatzen, mugikorrak zaintzen, etxeko termostatoa ongi programatzen, garbigailua eta lehorgailuak beteta daudenean erabiltzen, bizikletan edo oinez gehiago ibiltzen...



BATXILERGOA: Energiaz jokatu, bertakoa kontsumitu


Hernanin kontsumitzen den energia nondik datorren ezagutu dugu eta jakin dugu, soilik kontsumitzen dugun %10aren inguru datorrela iturri berriztagarrietatik. Baina hauek beti eta edonon dira egokiak? **Roll jolas** baten bidez, egoera bat planteatu zitzaigun, “*energia eolikoa jarri nahi dute gure inguruan*”, egokia al da denontzat? Denok berdin pentsatzen al dugu? Ikasleok, paper desberdinak hartu behar genituen eta gaiaren inguruan eztabaidatu. Ondorioztatu dugu argi izan behar direla kasu bakoitzean abantailak eta desabantailak eta zentzuz jokatu behar dela.

Bestalde, sortzen ari diren **komunitate energetikoak** izan ditugu aztergai eta gai honekin ondorioztatu dugu beharrezkoak direla burujabe izan nahi badugu eta garrantzitsua, energia sortzen den sorburutik gertu kontsumitu behar dela.



IKASLEEN ARTEKO FOROAK

Ikasturtean zehar ikastetxeetan egindako lanketa, Ikasleen arteko Foroetan partekatzen da. Bi foro ospatzen ditugu, bata lehen hezkuntzako ikasleen artean eta bestea bigarren hezkuntzakoak. Aurtengoak, Biteri kultur etxean ospatu dira, bata maiatzaren 3an, bestea maiatzaren 5ean. Bertan, Eskola Agenda 2030ean partaide garen ikastetxe guztietako eko-ordezkariak elkartzen gara. Helburua, gure lanak bata besteari kontatzea eta ondorioak, konpromisoak eta proposamenak bateratzea izaten da ondoren txosten hau osatzeko.



Ondorioak

Herriko energiaren egoeraren inguruan egindako lanketaren ondorioz emaitza ezberdinak lortu ditugu eta egindako diagnostikoen arabera, maila bakoitzeko aipagarrienak kontatzen joan gara.

Foro egunetan, ikasle talde bakoitzak, lortutako ondorioak semaforo baten gainean ipini zituen, denon artean jabetzeko zein den gure herriaz egiten dugun balorazioa.

Egia esan, ondorio gehienak horia eta gorriaren gainean jarri genituen, beraz, horrek esan nahi du oraindik badagoela zer hobetu gure herrian.

Konpromisoak

Foroak, gure konpromisoak bateratzeko ere aprobetxatu ditugu eta horren ondorioz, aurtengo dekalogoia sortu da.

Datorren ikasturtean baliagarria izango zaigu hartutako konpromisoak berrikusi eta zehazteko.

HERNANI
2022-2023 ikasturtea

eskolako agenda 2030

ENERGIAREN KONTSUMOA ZAITZEKO GURE KONPROMISOAK

1. Bai eskolan, bai etxean, argia soilik behar-beharrezkoa denean piztuko dugu.
2. Ahal den guztietan eguzkiaren argia zein beroa aprobetxatu ditugu.
3. Gelan gaudenean, erabiltzen ez ditugun gailu digitalak itzalita mantenduko ditugu.
4. Garraio publikoa gehiago erabiliko dugu.
5. Hotzetik babesteko arropa gehiago jantziko dugu edo mugitu egingo gara ahal bada.
6. Berogailua piztuta baldin badago ez ditugu leihoak irekiko, soilik minutu gutxi batzutan aieraztatzeko.
7. Ur bero gutxiago kontsumitzen saiatuko gara eta dutxa denbora mugatuko dugu.
8. Energiaren gaia maizago landuko dugu etxean eta lagunekin. Zalantzak energia-bulegoan argituko ditugu.
9. Gailu elektroniko desberdinen erabilera murriztuko dugu.
10. LED bombillak erabiltzeko eskatuko dugu bai etxean, bai eskolan ere.

Hernaniko Udala udalsarea 2030 EUSKO JARDUARTEKO GOBERNUA VASCO

UDALERA ZUZENDURIKO PROPOSAMENAK

Ikasleen arteko Foroetan, Udal ordezkariari luzatu nahi dizkiegun eskaerak gure artean adostu ditugu bozketaren bidez. Proposamen guztiak bost taldetan banatu eta bakoitzean, jasotako bozka kopuruen arabera zerrendatu ditugu.

Kale argiteria

1. Egunez argia itzali udal eraikinetan eta kalean ere. Farola eta foko batzuk egunez batzuetan piztuta egoten dira. Adibidez, Sagastialden, Ereñotzun...
2. Gabonetan argi gutxiago erabili kaleak apaintzeko eta egun gutxiagotan piztu, soilik Gabonetan
3. Farolen inguruan:
 - Kontsumo baxuko LED bonbillak erabili.
 - Kutsadura luminikorik sortzen ez duten farolak jarri.
 - Jende gutxi pasatzen den tokietan sentsorekin piztu daitezela, hau da, mugimendua sumatzen dutenean pizten direnak.
 - Maizago berrikusi egoera onean mantentzeko. Zenbait farolen egoera ez da egokia, adibidez Larramendi kalean, euria, kazkabarra... egiten duenean itzali egiten dira. Balantxa kalekoak ere batzuetan failatzen dute.
 - Argi mota aldatu, ikusgarriagoa izan dadin, laranja kolorea ematen dutenak zuriarekin ordezkatu. Intentsitatea eta argiaren norantza erregulatu.
4. Farola falta dago: Iturmendi, Florida, Zinkoenea, Hernani BHI inguruan...
5. Farola asko daude Ave Maria parkean eta gertu bata bestetik.
6. Ereñotzu auzoko kaleko argiak kolorez aldatu eta batek txinpartak botatzen ditu. LED al dira?

Eguzki plakak / Energia berriztagarriak orohar

7. Eguzki plaka gehiago jarri, eraikuntza publikoetan, ikastetxeak barne, semaforoetan, etxeetan...



Sentsibilizazioa

8. Etxeko argindar fakturak ulertzen lagundu.
9. Bizilagun-komunitateetan komunitate energetikoen erraztasunak eta onurak azaldu.
10. Berogailuaren erabilera eta elektrizitatearen kontsumoa hobetzen lagundu. Adibidez, Euronet programa bigarren hezkuntzan
11. Energiaren inguruko heziketa zabaldu, bai ikastoletan, baita helduagoei zuzenduta ere. Elektrizitate kontsumoa murrizteko tailerrak antolatu.
12. Herrian ekoizten den energia berriztagarri eta eraikin publikoetan aurrezten den energiaren berri eman.

Mugikortasuna

13. Garraio publikoaren maiztasuna areagotu. Adibidez, BU05 linean.
14. Auto elektrikoak kargatzeko lekuak jarri herrian.
15. Kaxkoan kotxeen zirkulazioa mugatu.

Bestelakoak

16. Dirulaguntzak:
 - Energiarekin lotutako dirulaguntzak eman beharra duten familiei, fakturak ordaindu ahal izateko...
 - Energia berriztagarriak sustatzeko.
17. Herriko produktuen kontsumoa bultzatzeko erraztasunak jarri bertako saltzaileei, postuengatik ordaintzen dutena jaitziz
18. Bertako produktuen azokak maizago antolatu.
19. Eskoletan termostatoak berogailuak itzaltzeko temperatura lortzen dutenean.
20. Ereñotzun dagoen Txirrita eskolak arazo zehatz bat du ur beroarekin, oso beroa ateratzen da dutxetan. Bestalde, berogailuetara doazen hodiak kanpotik doaz eta arriskua suposatzen dute temperatura altuagatik.



Hau izan da ikasturte honetan egindako lanketa. Datorren ikasturtea gaia sakontzeko eta partaidetza atala martxan jartzeko erabiliko dugu. Horretarako, esku-hartze planen aukeraketa eta diseinutik abiatuko gara, ondoren gauzatzeko. Eta planak aurrera eramateko Udalaren laguntza beharko dugula aurreratu nahi dizuegu.

Denon artean, herri jasangarri baten alde jokatu behar dugulako, INOR ATZEAN UTZI GABE!

Eskerrik asko zuen arretagatik!

2. LANPARA ERAGINKORRAK ERABILTzea, ENERGIA XAHUKETA SAHISTEKO.

Oraingoan, farola motetan oharituko gara. Barruan dagoen lampara kontsumo baxuko izateaz gain, fariolaren arabera argiztapena modu egokian bideratuta egon behar du.

DESEGOKIAK

EGOKIAK

Aurkitu al duzue nonbaiten argiztapen desegokia ematen duen fariolarik?

Ez Bai, non? _____

3. ARGIKUTSADURARIK EZ SORTZEA.

Aztertu bi irudi hauek. Zeintzuk dira bien arteko ezberdintasun nabarmenenak?

Non esango zenuke ematen duen ARGITERIAREN DIAGNOSIA? Hiru arriketak bat eginez, batena _____

ENERGIA KONTSUMOA

Esango zenuke erabiltzen duzula energia? Zeintzuk dira zure ohiturak? Osatu ondorengo galdetegia eta jakingo duzu.

HERNANI 2022-2023 ikasturtea

eskolako agenda 2030

LH 5-6

MURRIZTU ENERGIA KONTSUMOA ETA ALDATU OHITURAK

	Bai, bati	Batzu-etan	Inoiz ez
ARGIZTAPENA			
1. Gela batek ateratzean argia itzaltzen al duzue?	0	1	2
2. Egunez, etxeko argiak pizteko ohiturarik ba al duzue?	2	1	0
3. Erabiltzen al dituzue kontsumo baxuko bombillak etxean?	0	1	2
BEROKUNTZA			
4. Berogailua piztuta duzunean leihoak zabalzen al dituzue?	2	1	0
5. Neguan etxean beso motzean egoten al zara?	2	1	0
6. Etxeko beroak leihoetako zirkuituetatik ihes egiten al du?	2	1	0
APARATU ELEKTRIKOAK			
7. Itzaltzen al duzue telebista inork ez badu ikusten?	0	1	2
8. Gurean telebista, ordenagailua... stand-by egoeran gertatzen al dira?	2	1	0
9. Etxetresna elektrikoak kontsumo gutxiak al dira? (A)	0	1	2
Puntuaketa			

Lortutako puntuen arabera:

- 0-6: Zorionak! Egan dezakegu energielikoki oso jarrera jasangarria duzula. Ez duzue atzerik gastatzen energia izirik leze!
- 7-12: Ez dago galziki baina ahaletan txiki batekin, hobetu dezakezu. Animo!
- 13-18: Listera du orain arte ez duzula ezer ulertu. Beharrezkoa duzun baino energia askoz ere gehiago gastatzen duzu. Jami pilak!!!

